


# ONDARROA EKINEZ EGINA

eaj pnv

# ONDARROA EKINEZ EGINA



**Maria Dolores Etxano Varela**
46 urte. Ekonomia eta Enpresa Zientzietan Lizentziatua



**Miren Urresti Azpiri**
45 urte. Soziologa



**Adrian Osa Ibarloza**
57 urte. Kooperatibista



**Agurtzane Iriondo Lejardi**
61 urte. Sukaldaria



**Ibon Aranbarri Etxaburu**
55 urte. Zuzenbidean Lizentziatua



**Juan Mari Etxaburu Urrutia**
41 urte. Fundizioko langilea



**Gorka Badiola Etxaburu**
32 urte. Ingeniari Industriala



**Estibaliz Iraolagoitia Urrutia**
41 urte. Irakaslea



**Josu Maruri Txurruka**
40 urte. Zuzenbidean Lizenziatua



**Miren Solabarrieta Aznar**
64 urte. Arkitekta



**Aitor Oiarzabal Iriarte**
58 urte. Ekonomista



**Antigua Beristain Aranbarri**
70 urte. Jubilatua



**Marian Agirre Zelaia**
66 urte. Irakasle jubilatua



**Joseba Arantzamendi Etxaburu**
62 urte. Arrantzale jubilatua



**Mari Tere Txakartegi**
72 urte. Dendari jubilatua



**Mertxe Bedialauneta Osa**
52 urte. Dendaria

# AURKEZPENA

Udal hauteskundeetarako EAJ-PNVren taldeak Ondarroaren alde lan egiteko gogoa dauka, ilusinoagaz eta arduragaz.

Gure nahia danok bizi eta behar egin geinken Ondarroa izatea da, danok alkarregaz biziteko Ondarroa.






**Maria Dolores Etxano Varela** - Ondarroako EAJ-PNVren alkatetzarako hautagaia.

## Aitatutakoa gauzatzeko, gobernatzeko orduan, honako printzipioetan oinarrituko gara:

- **Gure politiken ardatz, herritarrak.** Herritarrenganako konpromisoa dogu, bardintasunean, alkartasunean, kritikan, parte hartzean, justizian, jasangarritasunean, euskeran eta aniztasunean oinarritutako gizartea lortzeko.
- **Akordioak lortzea izango dogu lehentasun**, ondarrutarron arteko akordio zabalak, premiei era bateratuan erantzunak emoteko. Ondarroak aurrera egiteko, danon indarrak metatu beharra dogu. Herriko eragileakin batera, adostasun zabalak lortu behar doguz.
- **Ondarrutarren parte hartzea sustatuko dogu**, aurretik informazinoa emon, eretxiak eta ekarpenak jaso eta erantzun osoagoak emoteko. Udala herritarrakin eta herritarrentzat egin nahi dogu.
- **Gainontzeko erakundeakin koordinatuko gara**, proiektuak aurrera eroateko danon alkarlana behar dalako. Koordinazino zuzena, eraginkorra eta etenik bakoa izango dogu gainontzeko erakunde publikoakin, baliabideak hobeto erabili eta egitasmo gehiago bideratu geinkezalako.

ONDARROA
EKINEZ
EGINA



# ONDARROA ZAINTZEN

## Udal Zerbitzuak

Udala eta herritarren arteko harremana bultzatu, erraztu eta arinduko dogu. Udala da administrazinorik eta hurrekoena. Beraz, herritarren preminak eta nahiak entzun eta ezagutu behar doguz.

**Gure erronka:**

- Udal zerbitzu aurreratuak izatea
- Parte hartzean eta gardentasunean oinarritutakoak
- Ondarrutar guztiak erabilteko modukoak.

### Herritarrentzako Udal Arreta Zerbitzua

- "Ondarroako Herritarrentzako Udal Arreta Zerbitzua" jarriko dogu martxan. Zerbitzuan, udaleko tramite guztiak bideratu, eta, gainera, gainontzeko erakundeei buruzko informazinoa be emongo da.
- Partaidetzako esparru barriak zabaltzea, teknologia barriak erabilita, gizartearen eta udal gobernuaren arteko komunikazinoa hurreratzeko.

### Ingurumena-Zamarrak

**Gero eta gehiago birziklatzea, zerbitzua kalidadekoa, ingurumena errespetatzen dauena eta borondatezkoa.**

- Herritarrak sensibilizaten jarraituko dogu,
- Zamarrak batzeko sistema hobetzea, zamarrak sailkatuta batzeko kontenedoreen bitartez. 5. kontenedorea jarriko dogu material organikoa jasoteko.
- Zamarren Tasan, %20 arteko bonifikazinoak 5. kontenedorea erabilten dabenentzat.
- Kontenedore guneak sortzea eta ondo garbitzea, usain txarrik ez egoteko.

### Garbitasuna

**Herri garbia nahi dogu, herritarrok gustura biziteko modukoa.**

- Garbiketa sistematizatu egingo dogu, herritarrak jakiteko zein egunetan eta zenbatero garbituko dan kale bakotxa.
- Herriko umeen parkeak eta gainontzeko egonlekuak arreta berezia izango dabe: zaintza, mantenimendua eta garbiketa berezia.
- Taldeakin landu eta adostuko dogu kartelak ipinteko guneak.

### Argiak, Seguridadea eta Jasangarritasuna

**Herriko argiteria hobetzea, beti be, jasangarritasun erizpideak erabilita.**

- Herri guztian argi mota bardina erabiltea. (Iñaki deuna kalekoa)
- Kaleetan argi gehiago izatea, kaleei kalidadea eta seguridadea emoteko, kaleetan danok lasai ibilteko.
- Argiak programatzea egunaren eta orduaren arabera.

# EKONOMIA BERPIZTEN

## Ondarroan nahi dogu behar egin eta bizi.

Preminazko inbertsinak eta enplegua sortzen daben proiektuak bultzatzea.

### Ondarroako Portua-Lonja

Ezinbestekoa da Ondarroako Portuan lonja barria eraikitzea, portuan zerbitzu egokiak izateko. Lonja izan daiteke gainontzeko aldaketen motorea, portua berrantolatu eta erabilera gehiago izateko.



### Errenteriko industrialdea

Aztertzea Berriatuko Udalagaz batera Erranteriko industrialdearen garapena, gaur egungo enpresak finkatu eta enpresa barriak kokatzeko tokia izateko, lan eskaintza dibersifikatu eta kalidadeko enplegua sortzeko.

### Merkataritza eta turismoa

**Turismoak herriko ekonomia indartu leike.**

- Herriko ondasunai balioa emon behar jake: hizkuntza, ohiturak, monumentuak, nortasuna...
- Hurreko merkataritza indartzea bultzatuko dogu.
- Ondarroako irudia zaindu beharra dogu, bai irudi komertziala, bai fisikoa: garbitasuna, estetika, argiak…

### Bide komunikazinoak erreztea

Ondarroa garatzeko, ezinbestekoa dogu Ondarroa eta Markina tarteko bidea amaitzea.



ONDARROA EKINEZ EGINA

eaj pnv

# BIZI KALIDADEA. HIRIGINTZA POLITIKAK

Hirigintza Politikak gauzatzeko tresnarik garrantzitsuena Hiri Antolamendurako Plan Orokorra da. Legealdian, Plana barriztu behar da eta bertan idatzi eta marraztuko da etorkizunerako Ondarroa: beharrerako tokiak, bizitzeko tokiak, parkinak, parkeak…

**Plan Orokor barria egiteko orduan, honakoak izango doguz kontuan:**

- Genero ikuspuntua eta hirigintza inklusiboa aplikatzea.
- Herritarren parte hartzea sustatzea.

## Ondarroako Alde Zaharra

- Gasa, zuntz optikoa falta diran kaleetan.
- Kale Handirako irisgarritasuna hobetzeko, neurriak aztertuko doguz.
- Udalak onartutako Alde Zaharreko Plan Berezia martxan jarriko dogu.

## Parkinak. Aparkalekuak eta Oinezkoen arteko oreka

**Ez da erreza gure herrian aparkatzea. Beraz, arazoari aurre egiteko:**

- Portua-Artabide eta San Inazio-Artibain parkinak egitea aztertzea.
- Kamiñazpiko parkina irekitzeko egin beharrekoak egitea.
- Mandatuak egiteko eta zama lanetarako aparkamentuak zelan kudeatu aztertzea, ordu birako aparkalekuak egon daitezan, beti be, debalde.

## Umeen parkeak eta Aterpeak

Gure proposamena Itsasaurreko eta Kamiñazpiko umeen parkeei aterpea jartea da.

## Eraikinak barriztea eta irisgarritasuna hobetzea

Herritarrentzako Udal Arreta Zerbitzua erabiliko dogu Eusko Jaurlaritzaren laguntzen barri emon eta laguntzok errazteko. Holan, etxeak konpontzea eta barriztea sustatuko dogu.

## Etxebizitzak

Etxea izatea herritarron eskubidea da. Udalaren Etxebizitza politika aurrera eroateko, ezinbestekoa izango da Eusko jaurlaritzagaz hitzarmenak egitea, **ETXEBIDE** zerbitzua Ondarroan indartzeko.



# GIZARTE POLITIKAK

## Herritar guztiak kontuan

Gizarte Zerbitzuak herritarren preminak detektatu eta baliabideen eta programen bitartez,jagokezan laguntzak eta zerbitzuak eskainiko deutsiez ondarrutarrai. Izan be, Gizarte Zerbitzuak oso garrantzitsuak dira, gizartea kohesionatzen dabelako.

### Horretarako, honako Gizarte Zerbitzuak nahi doguz:

- Toki eta leku egokian.
- Hurrekoak eta parte hartzaileak. Eragileen ekarpenak eta preminak kontuan izanda.
- Etxez etxeko Zerbitzuan itxaron zerrendarik ez egoteko, aurrekontu nahikoa jarriko dogu.
- Langile tekniko profesionalak, politikak eta aurrekontuak egokiak izan behar dabe.
- Zerbitzuak eskualdera hurreratzeko eta deszentralizatzeko eskatuko dogu.
- Alkarteei laguntzen eta euren aldeko sentsibilizazino kanpainak egiten jarraituko dogu.
- Herritarren zahartzeari arreta berezia eskainiko deutsagu, eta Gizarte Zerbitzuen bitartez, eta Osakidetzagaz batera, aztertuko dogu euren etxeetan bizi diran adinekoak preminak eta eskariak beteta daukiezan, beharrezkoa bada, laguntzak planifikatu eta emoteko.

## Herriko Bizitasuna handitzea. Kultura, kirola eta Hezkuntza

Herri bizia eta dinamikoa nahi dogu, disfrutatzeko herria

### Ekipamenduak:

- Udalak kultura ekipamendu asko ez daukanez, hitzarmenak proposatzea herrian pribatuak diranak erabilteko.
- Guzur Etxeko kulturgunea mantendu eta taldeakin adostuta erabilera hobetzea.
- Kiroldegiaren mantenimendua eta inbertsinoak hobetzea.
- Legealdian, eta etorkizunera begira, erabiltzaileakin eta taldeakin adostu zein kirol ekipamendu behar dogun.

### Herriko taldeak eta alkarteak.

**Taldeak eta alkarteak dira, besteak beste, herriari bizitasuna emoten deutsienak.**
**Hori dala eta:**

- Urte hasieran diru-laguntzen deialdia prest izango dogu, eta tramitazinoa erreztuko dogu.
- Horregaz batera, Udalaren eta taldeen arteko elkarlana sustatu eta landuko da Batzodeetan, aldiro, danon artean Ondarroako kirol eta kultura bizitza indartzeko.

### Hezkuntza

- Ondarroako Hezkuntza Zentroakin eta guraso alkarteakin zuzeneko harremana izateko eta alkarlana sustatzeko, Hezkuntza Batzordea aldiro batuko da.
- Gazte Lekuko eskaintza hobetuko dogu guraso alkarteakin batera, proiektu hezitzailea garatzeko.
- Prestakuntza izatea ezinbestekoa dala herriak be aurrera egiteko eta hitzarmenak egingo doguz Arrantza Eskola eta Institutuagaz euren eskaintza sendotzeko.

ONDARROA EKINEZ EGINA

eaj pnv

# ONDARROA DANONTZAKO DANON ARTEAN

## Bardintasuna

Bardintasun politikak behar doguz bardintasun formaletik errealera pasateko.

**Horretarako:**

- Genero ikuspegia kontuan izango dogu udalaren arlo eta jarduera guztietan,
- Andrazkoen aurkako indarkeriari aurre egiteko, Protokoloa hobetu eta erakundeen arteko koordinazinoa sustatuko dogu.
- Gainerako gizarte eragileakin sentsibilizazinoa eta kontzientziazinoa lantzen jarraituko dogu eta prebentzinoa, batez be gazteen artean.

**Egiturak**

- Bardintasun Kontseilua da egiturarik garrantzitsuena emakume alkarte, talde feminista eta banakakoen parte hartzea bermatu eta sustatzeko.
- EtxeLila Emakumin Topalekuk espazio dinamikoa eta irekia izaten jarraitu behar dau.
- Jabekuntza Eskolagaz jarraitzea emakumeen prestakuntza garatzen, eremu publikoan parte hartzeko.
- Hezkidetzari dagokionez, Hezkuntza Zentroakin beharrean jarraituko dogu gazteen artean bardintasun balioak indartzen.



# EUSKERA-HIZKUNTZA POLITIKA

Ondarroa herri euskalduna da. Halanda be, badogu zer landu.

**Horretarako:**

- Udalaren hizkuntza politika planifikatua eta dinamikoa izango da, euskeraren normalizazino osoa lortzeko, herriko eragileakin batera.
- Daukagun egoera mantendu eta euskalduntzeko doguzan eremuak indartu behar doguz, batez be, enpresa mundua
- Herriko euskaltegiagaz lankidetza hitzarmena sinatuko dogu, bien arteko lana finkatu eta egonkortzeko.
- Gainera, herri hizkera indartzen jarraituko dogu, Herri Hizkerari buruzko jardunaldiak barriro be martxan jarriz.



# ALKARBIZITZA

Alkarbizitzaren helburua herritarrak alkar errespetatzea eta gustura bizi ahal izatea da. Ondarroan, alkarbizitza jorratzeko.

- Udalak gunea sortuko dau, iraganari, orainari eta etorkizunari aurre egiteko, danon artean, herri zabala, demokratikoa eta justizian oinarritutako herria izateko Ondarroa.
- Iraganaren berrikuspen kritikoa egitea, oraina normalizatzeko beharrezkoak diran erabagiak hartzeko.
- Aniztasunean bizi nahi dogu, aniztasuna aberastasuna dalako.

ONDARROA EKINEZ EGINA

eaj pnv

**ONDARROA EKINEZ EGINA**

eaj pnv

## PRESENTACIÓN

El equipo que presentamos a las elecciones municipales en nombre de EAJ/PNV afronta el reto "con ilusión, responsabilidad y ganas de trabajar por Ondarroa"

Nuestro deseo: Una Ondarroa donde sus vecinas y vecinos "puedan trabajar y vivir, y puedan convivir todas las personas".






**Maria Dolores Etxano Varela -** Candidata a la Alcaldía de Ondarroa por EAJ-PNV.

### Para ello proponemos una forma de gobernar sustentada en los siguientes principios:

- **"Las personas como eje de nuestras políticas"**, un compromiso con las personas para avanzar hacia una sociedad más igualitaria, solidaria, crítica, participativa, justa, sostenible, euskaldun, integradora y diversa.
- Priorizaremos los acuerdos, acuerdos amplios entre ondarrutarras, para poder dar respuestas conjuntas a las necesidades comunes. Para que Ondarroa avance, tenemos que aunar fuerzas.
- Promoveremos la participación ciudadana, dando información, recabando opiniones, aportaciones y dando respuestas más completas. Queremos hacer un ayuntamiento con y para sus habitantes.
- Con el resto de instituciones, nos coordinaremos, porque para sacar proyectos adelante, hace falta una labor conjunta. Una coordinación directa, eficaz y fluida con el resto de instituciones públicas, y así podremos utilizar mejor los recursos y encauzar proyectos.

# CUIDANDO ONDARROA

## Servicios municipales

Impulsaremos, facilitaremos y agilizaremos las relaciones entre Ayuntamiento y ondarrutarras. El Ayuntamiento, como administración más cercana que es, debe escuchar para conocer las necesidades y expectativas de la ciudadanía.

**Nuestro objetivo:**

- Lograr unos servicios municipales avanzados.
- Sustentados en la participación y la transparencia.
- Accesibles a todas y todos los ondarrutarras.

## Servicio municipal de atención ciudadana

- Pondremos en marcha el "Servicio municipal de atención ciudadana" para que, desde el servicio, se informe y se realicen todos los trámites del Ayuntamiento, y además se dé información sobre otras instituciones.
- Abriremos nuevos espacios para aumentar y mejorar la participación de la ciudadanía y mejorar la relación entre ésta y el Ayuntamiento con ayuda de las nuevas tecnologías.

## Recogida de basuras y Medio Ambiente

Nuestro objetivo es que se recicle cada vez más, con un servicio de calidad, respetuoso con el medio ambiente y voluntario.

- Continuaremos sensibilizando en la importancia del reciclaje,
- Seguimos apostando por la mejora de la recogida selectiva de las basuras a través de contenedores y proponemos la implantación del 5º contenedor para la recogida de la fracción orgánica.
- Ofrecer bonificaciones de hasta el 20% en la Tasa de Basuras para quienes realicen un uso efectivo del quinto contenedor.
- Especial cuidado en la limpieza de las zonas de contenedores, para que no haya malos olores.

## Un pueblo limpio

**Queremos un pueblo limpio, para que podamos vivir a gusto.**

- Sistematizaremos la limpieza de forma que se conozca y publique el calendario y la periodicidad de limpieza de cada calle.
- Los parques y espacios infantiles tendrán atención especial en cuanto al cuidado, mantenimiento y limpieza.
- Acordar y trabajar con los grupos y asociaciones sobre dónde instalar espacios para pegar carteles.

## Iluminación, Seguridad y Sostenibilidad

**Mejoraremos la iluminación siguiendo criterios de sostenibilidad.**

- Homogeneizar en todo el pueblo el tipo de iluminación igual al de la travesía (Iñaki deuna).
- Aumentar la iluminación de las calles para dar calidad, seguridad y para transitar con tranquilidad.
- Programar la iluminación para variar la intensidad en función de los días y horas.



# REACTIVAR LA ECONOMÍA



## Queremos que se pueda vivir y trabajar en Ondarroa

Para ello, impulsaremos las inversiones y los proyectos para reactivar la economía y generar empleo.

## Puerto de Ondarroa-Lonja

Consideramos imprescindible construir la nueva lonja, para disponer en el puerto de los servicios adecuados, ya que entendemos que la construcción de la lonja puede generar un efecto tractor en el resto de cambios del puerto.

## Polígono Industrial de Rentería

Retomar el estudio de la zona industrial de Rentería junto con el Ayuntamiento de Berriatua, con el fin de crear actividad económica. Se trata de implantar un polígono industrial que sirva para promover actividades económicas consolidando las existentes y promoviendo nuevas que las diversifiquen.

## Comercio y Turismo

**El Turismo puede fortalecer la economía de Ondarroa:**

- Debemos dar valor a lo que tenemos: euskera, costumbres, monumentos, identidad.
- Impulsar el comercio de cercanía.
- Por último, tenemos que cuidar la imagen de Ondarroa, creando una marca y también cuidándola: limpieza, estética, iluminación.

## Comunicaciones

Es indispensable para el desarrollo de Ondarroa la finalización del tramo pendiente de carretera entre Ondarroa y Markina.









# CALIDAD DE VIDA

El instrumento más importante de las Políticas Urbanísticas es el Plan General de Reordenación Urbana. En esta legislatura, hay que renovar el Plan General, donde se plasmará y dibujará el futuro de Ondarroa: zonas para el trabajo, zonas para vivir, parkings, parques…

**Al realizar el Plan tendremos en cuenta:**
- Aplicar la perspectiva de género y avanzar en un urbanismo inclusivo.
- Impulsar la participación de la ciudadanía.

## Parte Vieja

- Finalizar en las calles que falta la acometida de gas y fibra óptica.
- Analizar las medidas para mejorar la accesibilidad de **Kale Handi**.
- Poner en marcha el Plan especial de la parte vieja aprobado por el Ayuntamiento.

## Parkings. Equilibrio entre aparcamientos y viandantes

**No es fácil aparcar en nuestro pueblo. Para hacer frente a este problema:**

- Analizar la construcción de parkings en las zonas **Puerto-Artabide** y **San Inazio-Artibai**.
- Hacer las gestiones necesarias para abrir el parking de **Kamiñazpi**.
- Analizar cómo gestionar aparcamientos gratuitos de corta duración.

## Parques infantiles y Cubiertas

Proponemos colocar cubiertas en los parques infantiles de **Itsasaurre** y **Kamiñazpi**.

## Rehabilitación y Accesibilidad de edificios

Utilizar el servicio de la oficina de atención al público para informar y facilitar el acceso a las ayudas que desde Gobierno Vasco se puedan tramitar.

## Vivienda

Es derecho de toda persona el disponer de vivienda. Para poder llevar a cabo la política municipal propondríamos un convenio con Gobierno Vasco a través de **ETXEBIDE**.



ONDARROA EKINEZ EGINA

eaj pnv

# POLÍTICAS SOCIALES

## Tenemos en cuenta al conjunto de ondarrutarras

La intervención en los Servicios Sociales debe hacerse de forma que se puedan detectar las necesidades y destinar los recursos y programas necesarios para las prestaciones y servicios a los que tiene derecho la ciudadanía de Ondarroa. Necesitamos poner en valor los servicios sociales ya que cohesionan la sociedad.

### Proponemos que los Servicios Sociales sean:

- Con ubicaciones y espacios adecuados.
- Cercanos y participativos, con una comisión de acción social en la que participen las asociaciones y particulares que tengan interés.
- Dotar de presupuesto suficiente para eliminar las listas de espera en la atención del Servicio de Asistencia Domiciliaria.
- Con personal profesional técnico, políticas y presupuestos adecuados.
- Solicitar la descentralización y acercamiento a la comarca y al municipio de los Servicios.
- Continuar con las campañas de sensibilización y apoyo a las asociaciones.
- Prestar especial atención al envejecimiento de la población y a través de los Servicios Sociales y en colaboración con Osakidetza, conocer si las personas mayores que residen en sus domicilios tienen todas sus necesidades y demandas cubiertas para planificar y prestarles los apoyos necesarios.

## Incrementar el dinamismo del pueblo. Cultura, Deporte y Educación

Queremos un pueblo vivo y dinámico:

### Equipamientos:

**Mejorar los equipamientos y servicios culturales y deportivos:**

- Como el Ayuntamiento no dispone de muchos equipamientos culturales, proponer convenios para utilizar los que son privados.
- Mantener el **kulturgunea** de **Guzur Etxe** y mejorar su utilización, pactando con los grupos su utilización.
- Mejorar el mantenimiento y las inversiones del Polideportivo.
- Durante la legislatura, y mirando al futuro, consensuar con los grupos y con personas interesadas qué equipamientos deportivos necesitamos.

### Grupos y Asociaciones

**Son los grupos y las asociaciones, entre otros, los que dan vida y dinamismo al pueblo.
Por ello, el Ayuntamiento se comprometerá a:**

- Tener preparada a comienzos de año la convocatoria de subvenciones y a facilitar su tramitación.
- Impulsar y desarrollar en las Comisiones, periódicamente, un trabajo conjunto.

### Educación

- Para mantener una relación directa y reforzar el trabajo conjunto, la Comisión de Educación se reunirá periódicamente.
- Mejoraremos la oferta del **Gazte Leku** conjuntamente con las Asociaciones de Madres y Padres, para desarrollar mejor su proyecto educativo.
- Teniendo en cuenta que la formación es imprescindible para que el pueblo avance, estudiaremos acuerdos con la Escuela de Pesca y el Instituto para reforzar su oferta y para que jóvenes de Ondarroa y del entorno puedan estudiar en los mismos.

# ONDARROA ENTRE Y PARA TODAS Y TODOS.

## Igualdad

Seguiremos desarrollando políticas de igualdad para pasar de la igualdad formal a la igualdad real.

- Tendremos en cuenta el enfoque de género en todas las actividades municipales.
- Para hacer frente a la violencia contra las mujeres, mejoraremos el Protocolo e impulsaremos la coordinación entre instituciones.
- Continuaremos trabajando la sensibilización y concienciación de la sociedad, la prevención sobre todo entre la juventud.

**Reforzaremos las estructuras existentes:**

- El Consejo de Igualdad es la estructura más importante como espacio de participación de asociaciones de mujeres y grupos feministas.
- EtxeLila Emakumeen Topalekua debe seguir siendo un espacio dinámico y abierto.
- Continuaremos con la Escuela de Empoderamiento impulsando la formación de las mujeres para su participación en el espacio público.
- En cuanto a la coeducación, continuaremos trabajando con los centros educativos, para seguir potenciando la igualdad entre la juventud.

## POLÍTICA LINGUÍSTICA

Ondarroa es un pueblo euskaldun. Aún así, nos queda mucho por hacer:

- Nuestra política lingüística municipal será planificada y dinámica, junto con el resto de agentes dinamizadores.
- Hemos de afianzar la situación actual, y reforzar los espacios que nos quedan por euskaldunizar, p.e. el mundo empresarial.
- Firmaremos un convenio con el euskaltegi, para afianzar y dar mayor estabilidad a la colaboración entre ambos.
- Además, seguiremos reforzando el euskera de Ondarroa, poniendo de nuevo en marcha las jornadas sobre el euskera local.

## CONVIVENCIA Y DIVERSIDAD

El objetivo de la convivencia es conseguir una Ondarroa donde nos respetemos y podamos vivir a gusto. Para conseguirlo:

- El Ayuntamiento creará un espacio para la participación donde quien desee, podrá reflexionar sobre cómo hacer frente al presente, pasado y futuro, para que podamos conseguir un pueblo abierto y democrático, basado en la justicia.
- Es importante hacer una revisión crítica del pasado para tomar las decisiones necesarias para la normalización.
- Fomentaremos la convivencia en la diversidad, puesto que entendemos la diversidad como riqueza.

ONDARROA
EKINEZ
EGINA

eaj pnv


ONDARROA
EKINEZ EGINA
MARIA DOLORES ETXANO
ONDARROAKO ALKATETZARAKO HAUTAGAIA
CANDIDATA A LA ALCALDÍA DE ONDARROA
eaj-pnv.eus
EMAN BOTOA / VOTA
eaj
pnv
HACER CRECER EUSKADI HAZI ARAZI